


AIKIMISTA



"Alkimista"
Paulo Coelho

PAULO COELHO

Aixerrota BHI
Ikaslea: M. S.
2003/2004

Liburu foruma

Liburuaren datuak:

Idazlea: Paulo Coelho

Izenburua: *Alkimista*

Argitaletxea: Txalaparta

Orri kopurua: 225 guztira

Zer non:

Paulo Coelho	2
Sarrera	2
<i>Alkimista</i>	3
Kokapena	3
Edukiaren azterketa	4
Egituraketa	5
Pertsonaiak	5
Baliabideak.....	7
Iritzia	8
Bibliografia	8

Paulo Coelho.....

Paulo Coelho, batzuen ustez hitzen alkimista dugun eta beste batzuentzat berriz idazle bikaina den hau, dudarik gabe egungo idazlerik garrantzitsuenetakoa da. Bere liburu gehientsuenak, oraingoan guk irakurri dugun Alkimista barne, 56 hizkuntzatarara izan dira itzuliak, mundu osoan zehar zalduenetakoak bihurtuz. Gainera literatur arloan garrantzi nabarmena izan dute, Pauloren ideia eta filosofiak, eta baita nobelen gaiak ere, mundua ikusteko beste modu bat ezagutu nahian milioika irakurle bildu baititu.




1947. urtean Rio de Janeiron jaio zen erdi mailako famili batean. Zazpi urte zituela San Ignacio Jesuiten ikastetxean barneratu zen, non, nahiz eta errezatzea eta meztara joatea gorroto, bere "Norberaren Kondaira" idazle izatea, hain zuzen ere aurkitu zuen. Laster izan zen honetan nabarmen, ikastetxeko literatur lehiaketa bat irabaztean. Halere, bera ez zen aurkeztu, izan ere arreba txikiak Paulok zakarrontzira jaurtikitako idazki bat entregatu baitzuen bere izenean.

Alkimista Pauloren bigarren eleberria izan zen eta, nahiz eta lehenengo liburuari esker hasi idazle ezagun bilakatu, *Alkimista*-k eman zizkion gaur egun dauzkan ospe ona eta laudorioak. Hau ez da inola ere bere azkeneko nobela izan; hiru-lau astetan idatzi ohi ditu eleberriak; hori bai, bakoitzak aurretiaz hausnarketa sakona dakar eta ondorioz, bi urterik behin (gutxi gorabehera) kaleratzen du nobela bat.

Sarrera.....

Eleberri ospetsu honetan artzain gazte batek basamortuan zehar Egiptorainoko bidean dauzkan gorabeherak ageri zaizkigu. Halere, guzti hau aitzaki bat besterik ez da hausnarketa sakon eta kutsu misteriotsu batean barneratzeko; alkimiarekin harremanetan jartzeko hain zuzen ere.

Paulo Coelhoen nobela garrantzitsuenetakoa den hau, 1988.ean argitaratu zen eta inondik ere espero ez zen arrakasta izan zuen, Hego Amerikan lehenik eta European geroxeago. Hala ere, urteen joan etorriaz, nobela honen arrakasta mundu osoan zehar



zabalduta da: 52 hizkuntzatan aurki daiteke. 35 milioi ale baino gehiago saldu dira argitaratuta izan den 150 estatutan, eta dagoeneko literatura garaikidean gehien itzuli den liburua da.

Liburua irakurterraza da nahiz eta esaldi bakoitzaren, hitz bakoitzaren ostean, hausnarketa sakon bat gordeta egon. Horregatik, denbora dezente daroma nobela bukatzeak, ez baita irakurketa soilak egin behar; norik bere buruaren hausnarketa egin beharra du behin eta berriz liburua guztiz konprenitzeko.

Liburuaren egiturari dagokionez, hasieran "Aitzinsolas" bat dago, eta horretan nobelaren sarreratxo bat ageri zaigu. Ondoren, eskaintza bat: J. rentzat, Egintza Handiaren sekretuak jakin eta erabiltzen dituen alkimistarentzat. Gero, Bibliaren zatitxo bat eta Hitzaurrea. Jada, 17. orrialdean, lehen zatia hasten da; izan ere, hainbat kapituluz gain, nobela bi zati nagusitan banandurik baitago. Bigarren zatia, 77. orrialdean daukagu eta azkenik, liburuari amaia emanez, Epilogoak.

Alkimista.....

Kokapena:

Istoria eliza zahar baten atarian hazten du Coelhok; Andaluziako larreren batean. Honela, Santiagok (nobelaren protagonista dugun artzainak) bere Norberaren Kondaira jarraituz Afrikako Iparraldean zehar barneratuko gaitu, Egiptoko Piramideetara iritsi arte. Alde batetik, Andaluziako larreak, non Santiago bere ardiekin urte dezente ibili den; eliza zaharkitu bat, non mutikoak amets berezi bat izan zuen eta teilatua puskatua izatean zerua agerian duen eliza; Tarifa, Santiagok erregearekin topo egin zuen lekua; Marrakex, mutilak zapaltzen duen lehenengo herri Afrikarra; Saharako basamortua, bidaia gehienaren ikusle dena; Oasia, Fatima ezagutu zuen toki zoragarria eta, azkenik, Egiptoko Piramideak ikus ditzakegu eleberri honetan. Beraz, gehienbat, istorioa lurralde bero eta lehorretan gertatzen dela esan dezakegu.

Garaia dagokionez, Paulok ez digu inolako zehaztasunik erakusten. Daukagun datu bakanetakoa, jada mairuek Iberiar penintsulan daudenekoa da. Halere, ageri zaizkigun paisaia eta datuek ez dute denbora zehatzik behar; izan ere, basamortuan dunak besterik ez dira aldatzen, eta beti izan eta izango dira gaztelu zaharkituak; gainera, kaleak eta etxeak dira basamortuko dende gain ageri diren zibilizazio kutsu bakanak eta honek ez digu ezer ere argitzen garaia dagokionez.

Edukiaren azterketa:

➤ Gaia:

Paulo Coelho eleberri honen bitartez, mundua ikusi eta ulertzeko beste era bat transmititu nahian zebilen. Gai nagusia, beraz, alkimia dela esan dezakegu eta honela Santiago artzainaren istorioa kontatzearen aitzakiaz, erakusten digu beste ikuskera hori. Santiagok, biritan izandako amets bat jarraituko du, baina hau benetan bidaiatzeko aitzakia besterik ez da, berak betidanik bidaiatzea izan baitu gogoko eta bidaia da, azken finean, esperientziarik garrantzitsuena. Esan dudanez, nobela alkimiaren lengoia sinbolikoan oinarritzen da: bihotzari kasu egin beharra; sinboloen lengoia bera; unibertsoko elementu guztien arteko harreman sakona eta Norberaren Kondaira burutzearen garrantziaz datza *Alkimista* obra.

➤ Argumentua:

Santiago izeneko artzain gaztearen istorioa kontatzen digu Paulo Coelhok nobela honetan. Mutikoa, famili arrunt-arrunt batean jaioa da eta betidanik izan du bidaiatzeko irrika eta gurasoek beretzat antolaturiko geroa ezeztatuz; hauek abade sar zedin nahi baitzuten, artzain bihurtu zen gazte zela.

Gau pare batean amets bera errepikatu zitzaion. Horretan, Egiptoko piramideen ondoan altxor bat aurkitzen zuen. Amets honek eta bidean aurkituriko hainbat eta hainbat pertsonaia bitxik gidaturik, Santiagok bere Norberaren Kondaira gauzatuko du.

Halere, bidaia luze xamar honetan zehar, altxorra bera baino askoz garrantzitsuagoa den beste zerbait ere lortuko du mutikoak: gauzen arteko harreman unibertsoa, bihotza entzun beharra, eta alkimiako beste kontzeptu batzuk deskubrituz eta konprenituz joango da.

➤ Gertakizun nagusiak:

>Santiago artzain gazteak birritan izan duen ametsari buruzko aholkua eskatzen dio hauen irakurle den ijito bati ametsean ageri den altxorraren hamarrenaren ordainetan.

>Mutilak plaza baten dagoela Melkides agurea, Salengo errege ere badena, ezagutzen du eta honek alkimiaren oinarriak erakusten dizkio, Egiptoko bidea egitera bultzatuz, Santiagoren ardien hamarrenaren ordainetan harri magiko batzuk, Urim eta Turim emanaz.

>Tangerren dagoela, zeukan diru guztia lapurtu diote mutikoari, eta beiraki denda batean lan egitera behartu. Denda honetan batzuek beren Norberaren Kondaira ez burutzea nahiago dutela ulertzen du.

>Saharako basamortuan zehar seinaleak interpretatzen ikasten du eta hauek ulertzearen garrantzia ikasten du.

>Fatima ezagutu eta berarekin zeharo maitemintzen da.

>Alkimista ezagutu eta honekin Egiptorako bidea egiten dagoela alkimiaren ezkutuko sekretu guztiak ezagutzen ditu.

>Jada piramideen ondoan altxorra bilatzen dabilela lapur batzuk aurkitu eta azken froga moduko bat gainditu ostean haietako batek, konturatu ere egin gabe non aurki dezakeen adierazten dio.

>Bere jaioterrira itzuli eta altxorra aurkituko du.

Egituraketa:

Nobela hau, era jarraian dago kontatua, ekintzen ordena mantenduz, nahiz eta zenbait txertaketa ere badituen. Honela, zenbaitetan, atzeranzko saltoak daude baina batik bat, lehenagoko pertsonaiek emandako aholku eta esandakoak oroitzen dituenean. Honela, hasieran ondo ulertu gabe geratu zitzaigun kontzeptu hori, ulerterrazagoa zaigu. Honetaz gain, bi istorio txiki txertatzen dizkigute pertsonaiek, gero hauetatik jokabide edo ondorioren bat ateratzeko.

Pertsonaiak:

Pertsonaiak ez dira bat ere arruntak, denak baitaude kutsu mistiko moduko batez inguraturik.

✓ Santiago:

Nobelako pertsonaia nagusi den Santiagoren izena ia ez da agertu ere egiten nobela osoan zehar; 17 eta 223. orrietan besterik ez da aipatzen. Honela, mutil bezala ematen du ezagutzera narratzaileak. Hau, gazte-gazte zela, bere txikitako ametsa jarraituz, artzain bihurtu eta gurasoen etxea alde batera utziz, landa eta mendietan zehar barneratu zen bere bidaiatzeko irrika gauzatuz. Ez dakigu bere jaioterriaren izenik, narratzaileak ezinbestekoa den informazioa besterik ez baitigu ematen; hau da, antzinako gaztelu batetik hurbil bizi ei zen. Famili apalekoa eta gurasoek abade izan zedin nahi zuten baina hauen iritziaren aurka, Santiagok bidaiatzea gogoko zuela eta artalde txiki batekin etxetik alde egin zuen gazte zelarik. Honela, eta jada seminarioan nahikoa ikasi zuelakoan, hamasei urte inguru zituela, irakur-liburua besapean irten zen etxetik. Santiagok asko ikasi zuen ardiengandik: hitzik gabeko hizkuntza hain zuzen ere, eta

horregatik kostatu zitzaion hainbeste bidaia egitea; izan ere, jakin beharreko guztia berauetatik ikasiko zuelakoan zegoen eta oso atxikia baitzegoen beraiengana. Hala ere, denbora pasa ahala, ardiekin ahaztuz doa. Honela basamortuan Fatima, bere bihotzeko kutuna ezagutu eta egunean egun, gauza berri eta garrantzizkoak ikasiz joango da, bidaiaren amaieran pertsona heldu bihurtzen den arte.

✓ **Salengo erregea:**

Santiago gaztea Egiptora joatera bultzatu zuen agure bitxia zen Melkides deituriko gizona. Arropa arruntez jantzita bazegoen ere, Salengo erregea zela baieztatzen zuen eta Santiagok lepoko liluragarri bat ikusi zionean egia izan zitekeela pentsatu zuen. Hala ere, errege izan edo ez, mutikoaren bizitzako pasadizo mordoa ezagutzen zituen, baita beste inork ez zekizkienak ere eta, horregatik, agureak bere benetako kondaira burutzeraz bultzatzen duenean, egia beharko zuela izan eta honen laguntzaz ekiten dio bidaiari. Agure hau da Santiago lehenengoz Alkimiairen ikasketekin kontaktuan jartzen duen pertsonaia eta zentzu batean hau da gertaturiko guztiaren sorburu.

✓ **Beiraki zaltzailea:**

Hau, mendi tontor batean, beiraki denda txiki batean bizi zen gizona zen. Beste urte zoriontsuago batzuk zituen gogoan eta negozioaren gainbeherari aurre egiterik ez zuelakoan zegoen. Santiago beretzat langile hartu eta honen ideia berritzaileei esker, asko hobetu zuen bizi baldintza. Gizon lasai eta bakarti honek, bere benetako Kondaira zein zen argi bazeukan ere, inoiz ez zuen burutu nahi izan, ondoren zer gertatuko zitzaion beldur baitzen. Honela, bere dendatxoan jarraitu zuen inoiz Mekara joan gabe, ametsa gauzatzean, bizitzeko arrazoirik gabe geratuko zelakoan. Santiagok pertsonaia honen aginduetara lan egin zuen bitartean, Arabiera ikasi zuen eta teari gustua hartzea lortu zuen.

Geroxeago beste hainbat pertsonaia ageri zaizkigu, zein baino zein interesgarriagoak hauek ere. Hala eta guztiz ere, garrantzizkoenak Fatima, Santiagoren bihotzeko kutuna eta Alkimista lirarteke. Fatima basamortuko emakume bat zen. Santiago ur leku baten ertzean ezagutu eta zeharo txundituta geratu zen berarekin. Emakume honen kausaz, Santiago bere benetako kondairari uko egiteko zorian egon zen; izan ere, honek ez zuen basamortua utzi nahi. Alkimista, berriz, oso gizon argi eta zintzoa zen. Hau izan zen Santiagori bidaiaren azken txanpa gainditzeko lagundu zion gizona. Honek alkimia buruzko hainbat ikasgai irakatsi zizkon. Nire pertsonaiarik gogokoenetakoa izan da Alkimistarena; izan ere, hau izan zen, artzainari norberaren bihotza entzun eta munduaren hizkuntza ulertzeko beharra

zegoela eta maitasuna zertan zetzan azaldu ziona. Honela, beste hainbat pertsonaia ere aurkitu ditzakegu, denak beren zereginekin eta istorioaren gorabeheren eragile beharrezko; izan ere, nola edo hala denek dute Santiagoren bidean eta honen eraketan eragin zuzena.

Baliabideak:

Eleberri honetan ia ez dago deskribapenik, izena ere oso pertsonaia gutxirena aipatzen den bezalaxe: Santiago, Melkides eta Fatima. Hala ere, badago deskribapen zatiren bat edo beste:

"...Andaluziako neskak izan ohi diren bezalakoxea zen ura ere: ile beltz labaina, eta garai bateko konkistatzaile mairuak gogorarazten zituzten begiak..." (20.or)

Ordea, elkarrizketa ugari da, eta honen bitartez goaz Alkimia eta baita Santiagoren bidaiaren gorabeherak ezagutzen:

"-Basamortuko emakumea naiz -esan zuen, aurpegia ezkutatuz-. Baina, batez ere, emakumea naiz" (170. or)

"-Jarrai ezazu Piramideetarantz -esan zion Alkimistak-. Eta seinaleei erne egon beti. Zure bihotza gauza da jada zuri altxorra erakusteko" (181. or)

"-Natura eta mundua ezagutzen dituen gizakia, hori da Alkimista. Hala nahi izanez gero, haizearen indar hutsaz desegingo luke berak kanpamentu hau" (19. or)

"-banoa zuregana Fatima -esan zuer" (225 .or)

Hala ere, nobela honetan gehien ageri den baliabidea, nork bere buruarekiko hausnarketa egitearena da,

"...Jesusen Bihotzaren irudia ere, baina, hemen dago...bururatu zitzaion, lasaitzeko ahaleginak egiten zituen bitartean" (31. or)


"...Ez dira jada nire ardiak...esan zion bere buruari" (106. or)

"...Ez dakit basamortuan bizitza aurkitzerik lortuko dudan...zioen berekiko mutilak" (162. or)

"...Dena gauza bakar bat da... pentsatu zuen mutilak"

Honetaz guztiaz gain, badira bi narrazio txiki ere, pertsonai batek kontatuak, gero ikasbide bat lortzeko:

"Gizakirik jakintsuenaren bila bidali zuen bere semea merkatari batek... gauza miresgarri guztiak begiratzea eta inoiz ez ahaztea bi oliotantz". (52-54. orr.)



"Antzinako Erroman, Tiberio enperadorearen garaian... esan ezazu hitz bakar bat eta nire zerbitzaria salbatu egingo da"

Honela, eleberriak baliabide anitz dituela esan dezakegu eta esandako guztia da beharrezkoa historiaren garapenerako, gauza guztiak baitaude elkarlotuta eta bata gabe ezin bestea ulertu.

Iritzia:

Nobelan zehar kontatzen diren pasadizoak (Santiagoren bidaia) gustuko izan baditut ere, are gehiago gustatu zait beste arloa; alkimia dagokiona. Egia esan, aspaldian euskaraz irakurri ditudan nobeletatik zalantzarik gabe gehien gustatu zaidana izan da. Bai zer eta baita nola kontatzen den gogoko izan baitut.

Gainera, iruditu zait badela nobela honetan beste zerbait askotan aurki ezinena: idazleak, nik uste behintzat, ipuin bat kontatzetik baino harago joan nahi zuen, irakurleei, munduko misterioak erakutsiaz eta mundua ikusteko beste filosofia bat ikasgaraziz. Honela, ikus dezakegu, nola, pertsona batek zerbait bene-benetan nahi badu, Unibertso guztia ados jartzen den azkenean lor dezan. Nahikoa da bihotza entzuten ikastea eta hitzez at dagoen hizkuntza ulertzen lortzea. Honela, Santiagoren bidaia esanguratsu honekin, gauza eder bat ikasten dugu, bizitzan gauza guztiak konektaturik daudela eta hau interpretatu beharra besterik ez dagoela, gure Norberaren kondaira burutu eta guztiz zoriontsu izatera iritzi ahal izateko.

Bibliografia:

Alkimista

Interneteko bere hainbat artikulu

Interneten publikaturiko elkarrizketak, foro, iritsi...

Xuxen

Paulo Coelho

Paulo Coelho

Askoren artean

Askoren artean